

74. atala: Bakarka

Liburua

74.1.- Aukeratu erantzun egokia:

1- Kevin ez da ongi sentitzen...

- a) farorik ez duelako.
- b) aurrerantzean gertatuko denak beldur ematen diolako.
- c) Trebiñu Ilk hutsune handia utzi diolako.

2- Astronautek erregaiarekin arazoak izan dituzte...


- a) orbitatik atera egin direlako.
- b) hala ere, badute orbitatik ateratzeko lain.
- c) hala ere, sobera dutela jakinarazi diote Eskisabeli.

3- Tasio haserretu egin da Kevinekin...

- a) honek koaderno urdinean idatzitako egunerokoaren berri bazuelako.
- b) koaderno urdinari buruz ezer ez zekielako.
- c) egunerokoan koarentenaren kontua aipatzea eskatu diolako.

4- Tasioren liburua...

- a) irradi-nobela bat izango da ziurrenik.
- b) bidaiatzeko baliagarria izango da, horrela Etxepareren kontura ibiltzeko aukera izango du.
- c) Etxeparek argitaratzea egokia iruditzen zaio Tasiori.



74.2.- Kevinek **Etxepare** zer den galdetu du. Zuk ere jakin nahi baduzu, bilatu beheko informazioa bere **orrian** eta erantzun galderei.

<http://www.etxepare.eus>

- Zer da Etxepare?
- Zergatik du izen hori?
- Kulturako zein arlo sustatzen ditu?



Transkripzioa (03:27)

- K- 24 ordu pasa dira Trebiñu II utzi genuenetik, eta nolabait faltan botatzen dut.
- T- Bai? Benetan?
- K- Bai. Ez dakit. Azken finean gure etxea izan da azken hilabete hauetan.
- T- Estokolmo sindrome-modukoa daukaguk.
- K- Ez dakit horrek zer esan nahi duen, baina, bai, nolabait zerbaitek esaten dit aurreratzean ezer ez dela berdina izango.
- T- Berdina ez. Askozaz ere hobea.
- K- Farorik gabeko farozainaren moduan sentitzen naiz.
- E- Iurreta deika. Iurreta deika.
- T- Bai, Iurreta?
- E- Zer moduz neurtuta eta parametro guztiak?
- K- Ongi.
- E- Erregai-erreserbekin arazoak izan ditugu. Orbitatik ateratzeko adina bai?
- K- Nahikoa.
- E- Eta zuek zer moduz zaudete?
- K- Hementxe.
- E- Tasio, zer gertatzen zaio honi? Hiru galdera segidan hitz bakar batekin erantzun dizkit.
- T- Lasai, kapitaina, malenkonía da. Uste genuenaren kontra, erromantiko bat da Johnson.
- E- Komunikazioa etetera noa. Atmosferara hurbiltzen zareten unera arte.
- T- Kazakhstanen bihar lur hartuz gero, akaso, urtezahar-gauerako iritsiko gaituk Euskal Herrira.
- K- Ez dut uste. Koarentena pasa beharko dugu.
- T- Koarentena? Hori aspaldiko kontua duk. Gaur egun ortzinautek berme guztiak zeuzkaugu.
- K-Kaxiano.
- T- Zer?
- K- Kaxiano gurekin dagoela, eta ziur naiz koarentenan jarriko gaituztela.
- T- Eta hire trajeko poltsikoan ezkututzen badiagu?
- K- Legez kanpoko zerbait proposatzen zabilta, Tasio?
- T- Urteberri-eguna familiarekin pasatzeko akatu egin behar bahaut, hori ere egingo diat, e?
- K- Lasai, gizona! Ezkutatuko dugu; besterik gabe harritu egin nau zu arauen kontra entzutea.
- T- Nire libururako, gainera, komeni zaidak halako gertaeraren bat.
- K- Zure liburua?
- T- Bai. Badakik, irakurleari beti gustatzen zaiok legearen kontra ari den heroien poetika.
- K- Ez didazu ezer esan liburuaren ideia horri buruz.
- T- Pentsatzen egon nauk, eta uste diat Trebiñu II n idatzitako diarioarekin liburu bat egingo dudala.
- K- Koaderno urdinean idatzi dituzun gauzekin?
- T- Bai, e! Eta nola dakik hik koaderno urdinean idatzi dudala egunkaria?
- K- Eeeee!
- T- Espazio-ontzitik atera bezain pronto txikituko haut!
- K- Koarentena! Oroitu, koarentena!
- T- Txantajista kabroia!
- K- Ez haserretu. Hau ere ongi geratuko da-eta zure liburuan.
- E- Benetan ari al zara, Tasio? Liburu bat?
- K- Irrati-nobela bat ere egin dezakezu.
- T- Ez dut uste. Eroegia litzateke espazioan oinarrituriko irrati-nobela egitea.
- E- Eta? Nork argitaratuko dizu liburu hori?
- T- Nik uste Etxeparek egin beharko lukeela.
- E- Aiii, pajaró! Zuk nahi duzuna da Etxepareren kontura mundu osoan bidaiatzen ibiltzea.
- K- Etxepare? Hori zer da ba? Bidaia-agentzia bat?
- T- Ez, Etxepare Institutua
- E- Tira! Apur bat bada bidaia-agentzia. Tasio, Johnson, 24 orduko atzera-kontakteta hasi behar dugu.
- T- Ongi da, kapitaina. Prest gaude.
- E- Atmosferan sartzera zoazte. Komunikazioa galduko dugu. Eutsi, mutilak!

74. atala: Bakarka

Erantzunak

74.1.-

c, b, a, c

74.2.-

Zer da Etxepare?

Erakunde bat da, euskara eta euskal kultura mundu osoan zabaltzea helburu duena.

Zergatik du izen hori?

Lehen euskal liburuan, Bernart Etxeparek idatzitakoan, hau agertzen zelako:

Heuscara ialgui adi campora

Heuscara ialgui adi plaçara

Heuscara ialgui adi mundura

Kulturako zein arlo sustatzen ditu?

Literatura; zinema; antzerkia; dantza; ikusizko arteak; musika (klasikoa, Pop, Rock eta Folk); argazkilaritza; diseinua eta arkitektura; gastronomia; bertsolaritza; tradizioak.